

TOLOSA ▶

Miau ala... groau?

Haur antzerkia
bihar Leidorren ▶ 3



Zizurkilgo Antzerki Astea datorren aste osoan zehar

DENENTZAT ▶ Adin guztientzako lanak izango dira Atxulondon, Zimiteyuan eta Gurea aretoan

ANTZEZLEAK ▶ Antzezle profesionalak, amateurak eta eskolako haurrak ariko dira ▶ 4

LEITZA ▶

Barriola kanpoan utzi dute txapelketan

EPEL-eko epaileak ez dio atzerapena onartu ▶ 7

BAKARTXO TEJERIA ▶ EA-EAJ-KO HAUTAGAIA



IRATXE ETXEBESTE

«Erabakitzeke eskubidea dugu eskuartean»

Herri galdeketa egin egingo dela dio billabonatarak ▶ 2



Etxebizitzak egiteko partzelak esleitzeko deia

BALIARRAIN ▶ Herrian eraikiko diren etxebizitzaren partzelak esleitzeko deialdia luzatu du Udalak. Interesa dutenek maiatzaren 3a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Deialdia Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu zen deialdia hilaren 12an. Hamabi partzela urbanizatuko dituzte, hamar familia bakarrekoak

eta beste bi, bifamiliarrak. Hirigintza lanak hasi dira udaletxearen atzealdan —argazkian— eta ekainerako bukatuta egotea espero dute udal ordezkariak. Helburu nagusia «herriaren biziraupena lortzeko beharrezko biztanle kopurua mantentzea eta haztea da», Martzelino Dorronsoro alkatearen esanetan. NOELIA LATABURU ▶ 5

Telebistako SPOTAK

APIRILAK 15, OSTIRALA

tve 2 19.45tan

DIRU LAGUNTZA / AYUDA ECONOMICA

Euskadiko Kutxa / Caja Laboral
3035 0083 20 0830096411

Caja Vital Kutxa
2097 0221 51 0008319451

BBK
2095 0000 00 9106737866

DEMOKRAZIA
eta BAKEA

BOZKATU

EHAK

GAUR

BILBO GASTEIZ

Plaza Berrian
arratsaldeko 7.30tan

Matxete plazan
arratsaldeko 8.30tan

BAKARTXO TEJERIA ▶ EA-EAJ KOALIZIOAREN LEGEBILTZARRERAKO HAUTAGAIA



IRATXE ETXEBESTE

Lasaitasun handirik ez da nabari gaur herrian. Azoka eguna egokitu zaigu udaletxe aurreko Errebote plazan [asteartean egina da elkarrizketa], eta bere bulegotik ere entzuten da kanpoko zarata. Villabonako alkate (EAJ) izateari eta EA-EAJ koalizioak Legebiltzarrerako Hauteskundeetan bigarren hautagai aukeratu izanari buruz galdetu dio HITZAK Bakartxo Tejeriari. Zehatza eta argia izan da itaun horiei, eta gainerrakoei, erantzuterakoan.

Bigarren aurkezten zara Eusko Legebiltzarreko hautaigaitzara. Alkate izatearekin nola uztartzen duzu hori?

Legebiltzarkide izateak alkate izatea baino lan gutxiago ematen du, eta konpontzen naiz; saiatzen naiz leku batean eta bestean egoten. Konpromisoak hartzen dituzunean hori dira: konpromisoak, bai herriarekin, alderdiarekin... Parlamentuan, 75 lagunen artean bat gehiago zara, baina herrian arazoak mahai gainean dituzu; batzuei irtenbidea ematen diezu eta besteek ez. Hori da frustraziorik handiena ematen didana: denon gustura ezin egitea.

Zergatik koalizioari heldu?

Momentu bat izan zen, ikusi zena aurkaria non zegoen, edo herri honek aurrera egin behar zuela. Eta herri honek aurrerapausoak emateko beharrezkoa zela elkartzeari eta produktu komun batekin aurrera egitea. EAJ eta EAJK, bakoitzak bere desberdintasunean, produktu komun bat dute: herria aurrera eman behar dela, elkartuta, beti, indarrak gehiago direlako. Erkarlana eginez, azkenerraino joan nahi dugu.

Esan liteke EA-EAJk herri galdetan oinarritu duela kanpaina. Legegintzaldi berriko erroka izango al duzue hori?

Madrilidik oraintxe etorri gara. Atea itxi digute, beraz, berriro saiatu beharko dugu negoziatzeko; alderdi guztiak akordiora heltzen badira oso ondo, besteak beste, aurrera eramango dugu kontsulta; herriari galdetuko zaio zer nahi duen. Hori da gure helburua, baina horrek ez du esan nahi gainontzeko gai sektorialak alde batera utziko ditugunik: osasungintza, hezkuntza, errepide... onenak edukitzen jarraitu nahi dugu.

Prozesu horrek itxura hartuko duela uste duzue datozen lau urteetan?

Aurreko laurak koltxo hori jartzeko balio izan dute, eta hurrengo fasea, Ibarretxek esan duen bezala, berriz ere lehendakari bada Zapaterori eta gainerrakoei alderdiei deitzea izango da, berriro esateko estatutu

«Eskuartean dugu herri honek sekula izan ez duena: erabakitze ahalmena»

Legegintzaldi berrian herri galdeketa egin egingo dela dio Villabonako alkateak, alderdiak akordiora heltzen ez badira



IRATXE ETXEBESTE

bat dugula gehiago absolutuz onartutakoa eta negoziatu egin behar dela. Dena eztabaidatu daiteke, baina badira minimo batzuk errespetatu behar direnak: herri bat garela, eta erabakitze eskubidea dugula.

Ez dirudi Espainia hori onartzeko prest dagoenik. Eusko Legebiltzarrean gehiago abertzalea desagertzea nahi ote dute PPK eta PSOEek?

Dudarik gabe, eta hori aurrera eramateko edozer gauza egiteko gai direla ikusi dugu.

Alderdiak hauteskundeetatik kanpo uzteko, adibidez?

Aukera Guztiak nola ilegalizatu zituzten ikusita, denaren kontra doazela pentsa daiteke. Alderdi bezala hasieratik esan dugu Alderdi Legearen aurka gaudela. Eta alderdikide bezala, nik ulertzen dut alderdi bat instituzioetan egongo dela jendeak hala nahi badu. Ez dago epaile bat, lege bat; fiskala ez da inor esateko alderdi batek erakundeetan egon behar duen edo ez.

Lege horren arabera, Batasunak ez du aurkezterik.

Estrategia argi ikusi dugu hasieratik: 98tik dator; ordura arte, nolabait, egoera politikoa kontrolpean zeukaten, eta ikusi zutenean elkartzen hasi ginela, indarra genduela eta aurrera

tira genezakeela, baldertu egin ziren. Orduan, jokalarien artean bat kendu zuten: EH.

EHAK-k aurrera egingo duela dirudi, PP ezekoan tematuta egon arren. Zer iritzi duzu?

Ni pozten naiz Batasunak eta ezker abertzaleak erreferente bat izateaz bozkatuko. EHAK parlamentuan eta beste instituzioetan egotea oso positibo ikusten dut. Bakoitzak bere pentsatzeko moduarekin, idealekin, programarekin saiatu behar du jendea konbentzitzen, eta onenak boto gehien lortuko ditu.

Botoak kenduko dizkizuetelakoan, deseroko zaudetela entzun izan da hedabideetan...

Ez digu inork ezer kentzen; garbi daukat, herritarrek nahiko heldutasun badutela zer bozkatu behar duen erabakitze.

Euskal Herriko egoeraz zer irakurketa egiten duzu?

Alderdi guztiak dute indarra Euskal Herrian, eta denak, Batasunatik hasi eta PPraino, ez bagara mahai batean esertzen eta elkarrekin zerbaitea iristen, luzerako daukagu. Bagegintzara iritsi behar badugu, denok elkarrekin hitz eginez eta adostuz izango da.

Zilegi da hori?

Emaitzek ere zerikusia izango dute. PPK ikusten badu denak

kontra dituela konponbide baten ildoan sartu beharko du, nahiz eta beraiek beti ezetz, ezetz, ezetz esan. Niri gustatuko litzaidake alderdi guztiak gai izatea hitz egiteko, eta, nolabait, konponbide batera iristeko. Horrek lasaitasuna ekarriko luke, eta politika egingo genuke. Eta ez dena politizatu, gaur egun egiten den bezala.

Borondate kontua dela esan nahi duzu?

Erabat. Denek borondatea jarriko balute! Herri honek, hainbeste urte eta gero, hainbeste borroka, sufrimendu eta gero merezi du lasaitasuna, esperantza bat. Baina garbi dago alderdi guztien beharra dagoela eta guztien borondatea beharrezkoa dela.

Hauteskundeak nola joango diren pentsatu al duzu?

Ez naiz kinielen zale. Hain zaila da jakitea pertsona batek zer arrazoigatik bozkatuko duen alderdi bat edo beste! Eskatzen duguna da PPK eta PSOEek baino eskainu bat gehiago lortzea, alderantziz izatekotan negoziatzeko deuseztatuko dutela garbi dagoelako.

Hautagai gisa, zer eskainiko diezu euskal herritarrei?

Eskuartean dugu herri honek sekula eduki ez duen aukera: erabakitze ahalmena. Une honetan aukera hori daukagu, zer nahi dugun, zer harreman nahi dugun, zer lortu nahi dugun... erabakitzeak. Hori herritar bakoitzak erabakiko du, ez politikoei, ez lehendakariari. Aukera hori aprobeztatu egin behar da, eta guk hori eskaini nahi dugu. Aspalditik datorren nahi bat da, eta orain bideratuta dago aurrera eramateko. Horrek esperantza bat irekitzen du, eta uste dut auzartak izan behar dugula, eta jende guztiak parte hartu behar duela horretan.

Bozkatzeko asmorik ez dute-nei, zer esan?

Oso garrantzitsua dela. Esaten didatenean ez dutela bozkatu behar ez dut ulertzen; orain dela urte batzuk ezin genuen bozkatu. Eta askotan ez diogu garrantzia ematen egindako lanari eta urtetan lortu diren gauza guztiak.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste, J.M. Gernikako

Arbola 3 (Tolosa). 943 65 10 40

Plaza, M. Elbarren 36(Leitza)112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

ARRAUNA ▶

LEIRE MONTES

«Ontzat jo behar dugu joan den asteburuko». Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Pasaian, eta eskualdeko bi ordezkari aritu ziren arraunean: jubenil-senior neskek, eta infantil mutilak. Egindakoarekin «gustura» daude Tolosaldeko Arraun Klubekoak (TAK): «Esperientzia gutxi baina ilusio ikaragarria. Eta nahiz eta eguraldiak batere lagundu ez, neska-mutilak fin aritu ziren. Hotza, euria eta itsaso mugitua; ederrak baldintzak eskarmentua hartzeko! Batez ere, horretarako balio izan baitie asteburukoak Tolosaldeko arraunlariei: eskarmentua hartzeko eta zailtzeko».

Sailkapenari erreparatuta, neskek ez zuten zereginik izan lehian. «Behar baino gutxiagoda bezperetan entrenatzeko, eta hori nabaritu egin zen gero uretan. Hori bai, oso teknika politarekin aritu ziren». Koteli Perez entrenatzailearen lana bere fruituak ematen ari da. Izaro Zubiriak, Izarne Garmendiak, Laida Etxedonak, Maitane

«Esperientzia ona»

Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) bi tripulaziok hartu dute parte Gipuzkoako Txapelketan; txukun aritu dira arrunlariak



TAK-en jubenil-senior mailako nesken tripulazioa. HITZA

Garmendiak eta Irati Ezeizak osatu zuten nesken tripulazioa. Haien parte-hartzeak «historia» egin du eskualdean: bertako neskek osatuta, lehiaketa

ofizialean aritu den lehen bate-lan izan da.

Bestalde, mutilek Ohorezko Txandan hartu zuten parte igandean, lehen lauren artean

sailkatu baitziren bezperan. Finalean ere gogor lehiatu ziren San Pedroko eta Hondarribiako tripulazioekin, eta azkenean parez pare amaitu zuten pasaitarrekin. «Emaitza ona da, jakinik oraindik asko dutela ikasketo 12-13 urteko gazte hauek. Horretan ari dira Julian Gorostegiaren, Txelis Lopezen eta Vicente Navasen gidaritzapean». Jon Gago, Harkaitz Izagirre, Endika Lopez, Julen Gorostiaga eta Ugaitz Mendizabal aritu ziren.

Itziar Saizar, Getariarekin

Itziar Saizar ibartarraren lana goraiatu dute TAK-ekoek. Getariako batelean arraun egin zuen, eta Gipuzkoako Txapelketan hirugarren sailkatu zen, emakumezkoen jubenil-senior mailan. Klubekoek azaldu du-

SAILKAPENA ▶

JUBENIL-SENIOR NESKAK

2.000 metro, 3 ziaboga.

Izena	Denbora
1. Santiagotarrak	11:18:06
2. Fortuna	11:25:00
3. Getaria	11:43:11
4. Orio	12:14:44
5. TAK-Tolosa	12:21:91

INFANTIL MUTILAK

1.000 metro, ziaboga 1.

Izena	Denbora
1. Orio	05:00:42
2. Getaria	05:09:31
3. Koxtape	05:29:13
4. Hondarribia	05:48:29
5. San Pedro	05:59:24
6. TAK-Tolosa	06:01:00

tenez, batel denboraldia Getariako batelarekin osatu du Saizarrek, hangoek jendea falta zutelara eta, eta Federazioak antolatutako ligaxkan hartu du parte. «Maila bikaina eman du, eta ikusi egin behar aurrerantzean zer egingo duen. TAK-ek, sortu berria izanik ere, baditu bai harribitziak!».

TOLOSA ▶

Aita Santuaren alde, meza Santa Maria parrokian

Bihar ospatuko dute, 11:00etan; «herritar guztiak» gonbidatu dituzte otoitzaldira

L. MONTES

Karol Wojtyla Juan Pablo II.a Aita Santu hil berriaren alde otoitzaldiak egiten ari dira egunotan munduko herri eta txoko askotan. Santa Maria parrokian ere bat egin nahi izan dute ospakizun horiekin, eta biharko meza berezia prestatu dute.

Goizeko hamaiketan egingo dute bihar eukaristia berezia Santa Maria parrokian. Juan Pablo II.aren aldeko otoitza egingo dute bertan fededunek. Era berean, «Elizaren Artzai berriaren aukeraketaren alde» ere egingo dute otoitz.

Parrokiakoek «herritar guztiak» dei egin diete biharko Eukaristia berezian elkar-tu eta parte hartzera anima daitezen.

TOLOSA ▶

Miau ala... groau?

Hika teatroa-k 'Groau!' haur antzezlan eskainiko du bihar Leidorren; katu berezi baten istorioak kontatzen ditu

L. MONTES

Lau hanka, baina miaurik ez; bibote bi, baina marra- orik ez; buztan beltza, baina ilerik ez; katua ez banaiz, zer ote naiz ni? Groau!».

Bai, katu baten istorioa da *Groau!*. Baina ez katu arrunt batena. Ez, katu horrek ahizpa bat du. Ama ere bai. Amona izan daitekeen izeba bat ere badu. Eta katu honek bere etxean beste inork ez duen beste gauza asko ditu. Ille beltz-belta, indar gutxi, gorputz txikia eta ahots bitxi-bitxia: miau egin beharreen karraska egiten baitu.

«Azeria ote da, bada? Erbia, agian? Katagorria, akaso? Txakurra, beharbada? Nor ez da, behin edo behin, haurra izan eta tximinoa dela pentsatu, katu izan eta txotxongilo gisara ikusi bere burua?».

Musikaz lagundurik, bidaia bitxian eta hunkigarrian murgilduko ditu haurrak *Groau!* antzerki emanaldiak. Ipuin herrikoien egitura borobila jarraituz, katutxoaren bizipenak eta sentipenak taula gainean antzezten ditu Hika teatroa taldeak. Tolosaldeko haurrek — eta helduek, zergatik ez— istorio horiez gozatzeko aukera izango dute bihar, 17:00etatik aurrera, Leidorren.

65 minutuko iraupena du obrak, eta 3 urtetik gorako haurrentzat da egokia. Yolanda Arrietak idatzi du; Belen Cruz, Miren Gojenola eta Niko Lizeaga aktoreak ariko dira, Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean. Hika teatroa taldea 1990an sortu zen, eta antzerki mota asko lantzen ditu.

Emanaldirako sarrerak salgai daude Kultur Etxean, lau eurotan. ◀



Katutxoa eta bere lagunak, emanaldiko hainbat unetan. HITZA

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA			
FORMAKUNTZA IKASTAROA (Langileentzat)			
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Erregulazio automatikoen elementuak	20	2005-04-18	18 - 21
Oinarrizko elektrizitatea (katalogoz kanpo)	30	2005-04-18	18 - 21
CAD-3D Modelatu eta planoak (UNIGRAPHICS)	30	2005-04-18	18 - 21
Zizalla, Plegatze eta Puntzonatzea	40	2005-05-03	18 - 21
PLC-OMRON Automata programatze aurreratua	40	2005-05-09	18 - 21
Automatismo elektroteknika (KUADROAK)	40	2005-05-09	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Adin guztientzako antzezlanak izango dira asteleheneetik aurrera III. Antzerki Astean

Sei egunetan zehar antzezle profesionalak, amateurrek eta eskoletako haurrek eskainitako obrek antzerkiaren lurrina zabalduko dute herriko bazterretatik

IMANOL GARCIA

Datorren astelehenean hasita sei egunetan zehar antzerki emanaldiak izango dira herrian. Izan ere, Udalak Zizurkilgo III. Antzerki Astea antolatatu du. Adin guztietarako antzezlanak egingo dira. Antzezleak profesionalak, amateurrek, zein eskolakoen umeak izango dira.

'Xomorroak'. Haurrentzako antzezlanak eta Txalo antzerki taldeak taularatuko duena. Antzezlanak «besteen berezitasunak errespetatzen» erakutsiko dio ikusleari. Istoriok bost urteko neskatok batek jasotako opari baten inguruan gertatzen dena azaltzen da. Arrosa izeneko amak alaba Loreri lorontzi bat oparitzen dio. Loreri ez zaizkio loreak gustatzen. Ez daki, ordea, lorontzi batean, loreez gain, beste giza-ki asko bizi direla. Lorontzi horretan era guztietako pertsonaiak eta istoriak gordetzen dira.

'Ugaztun baten nahiak'. Berezikiguraso elkarte eta eskole-tako kide diren gurasoei zuzenduriko antzezlanak da Teresa Lopez de Muniain aktoreak egiten duen bakarriketa hau. Ester izeneko emakume batek



Zizurkilgo III. Antzerki Astea iragartzeko duen kartela. HITZA

bere jaiotzaren esperientziarekin egiten du topo ametsaren bitartez. Ester bere haurtzaroko sentimenduen ezagutza-bidaia hasiko du. Garai bateko neska hark beharrezkoak dituen helduei, heldu kontraesankorrei, iheskorrei, bere arazo eta mugen isla diren helduei

egingo die aurre. Antzezlanak irauten duen denboran haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Antzerki tailerren emanaldia. Herriko antzerki tailerrek emanaldia eskainiko dute, urtean zehar egindako esperientziak baliatuz.

Haurrak antzezle. Pedro Mari Otaño eskolako 2 eta 3 urteko haurrek *Barraskiloa* izeneko antzezlanak eskainiko dute. 4 eta 5 urtekoek, berriz, *Iputargia* izeneko antzeztuko dute. Jesusen Bihotza ikastolako 5. mailakoek *Edurne Zuriren* ipuina antzeztuko dute.

'Mimarte'. Gazteei zuzenduriko mimo emanaldia da Peter Roberts-ek sortutako *Mimarte*. Munduko arterik zaharrena erabilia eta egunero sortzen diren egoerak erakutsiz, *alkoholaren kulturak* gizartearen dartzan arazoak direla-eta jarrerak kritikoa hartzen laguntzea du helburu antzeztuz honek.

Marsel magoa. Magia eta umorea nahasten dituen emanaldia eskainiko du Marsel magoak, jubilatuei zuzenduriko ekitaldian.

'Euskara sencilloaren manifestoa'. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek sortutako komedia. «Mundu honetan ezer ez da perfektoa, euskara ere ez (barka diezagula Bernat Etxeparek). Ilargiak bere alde iluna duen bezala, euskaldun-zazioak *kalte kolateralak* dartzak», azaltzen dute obra honen sortzaileek.

EGITARAUA ▶

ASTELEHENA 18

15:30. *Xomorroak*, Atxulondo kultur etxean.

ASTEARTEA 19

18:00. *Ugaztun baten nahiak*, Atxulondo kultur etxean.

ASTEAZKENA 20

17:30. Zizurkilgo Antzerki Tailerren antzezlanak, Atxulondo kultur etxean.

OSTEGUNA 21

10:45. Pedro Mari Otaño eta Jesusen Bihotza eskolako haurren emanaldia, Atxulondo kultur etxean.
15:00. *Mimarte*, Villabonako Gurea antzokian.
17:00. Marsel magoa, Atxulondo kultur etxean.

OSTIRALA 22

22:30. *Euskara sencilloaren manifestoa*, Zimiteyuan.

LARUNBATA 23

20:00. *Greban gaude*, Lakrikun taldearen eskutik, Atxulondo kultur etxean.

'Greban gaude'. 2004. urtean Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetako saria jaso du Lakrikun antzerki taldearen lan honek. Antzeztanean hiru garbitzailek grebara joatea erabaki dute, grebaren zergatia hasera batean inork garbi ez badu ere. Hirurak elkartu egingo dira eta solasari egingo diote. Oso ezberdinak dira beraien artean, emakumezkoen pentsaera eta ikuspegi ezberdinak azalduz.

Zure botoa
aralar
aro berria, bide berriak
erabaki ezkerretik

BALIARRAIN ▶ HIRIGINTZA

Etxebizitzak eraikitzeko partzelak esleitzeko deia

Estatuko Buletin Ofizialean asteartean argitaratu zen eta maiatzaren 3a baino lehen eman behar da izena udaletxean; hirigintza lanak hasi dituzte jadanik

NOELIA LATABURU

Baliarraingo Udalak herrian eraikiko diren etxebizitzaren partzelak esleitzeko deialdia luzatu du. Horretan interesik duten udaletxeko bulegoetan eman beharko dute izena maiatzaren 3a baino lehen eta dagoeneko Udalak adostu duen baldintza plegua jaso beharko dute. Deialdi hau Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu zen apirilaren 12an, asteartean, hain zuzen.

Aipatu baldintza plegu honetan izena ematen dutenek bete beharko dituzten lehentasuneko puntu batzuk zehaztu dituzte. Hau Baliarraingo herri-arrantzat «onuragarria» izango dela ziurtatu dute Udaletik, beraiek izango baitira zerrendetan lehentasuna izango dutenak. Aintzat hartu nahi dituzte, halaber, Baliarraingo biztanleak izatearekin batera, etxebizitzarik ez duten gazte eta helduak, etxe berri hori herrian bertan eraiki dezaten. Dena den, kanpokoak ere aurkezteko eskubide bera dutela azpimarratu nahi izan dute, «luzatzen dugun deialdi hau denentzat ireki baitugu».

Guztira hamabi partzela urbanizatuko dituzte, bertan eraiki

ki ahal izateko; horietatik hamar familia bakarrekoak izango dira, beste biak bifamiliarrak izango direlarik.

Lur hauen hirigintza lanak hasi dituzte dagoeneko. Arazokak izan direla-eta uste baino beranduagoa hasi dira, baina aurtengo udarako amaitu nahi dituzte. «Oso zaila izango da ekainean amaitzea, baina laister amaituko direlakoan gaude», azaldu du Baliarraingo Udalak.

Herriaren hazkunderako

Martzelino Dorronsoro Baliarraingo alkateak jakinarazi duenez, proiektu honen helburu nagusietariko bat «herriaren bizi iraupena lortzeko beharrekiko biztanle kopurua mantentzea eta haztea da». Hau dela-eta azpimarratu nahi dute hirigintza proiektu honen garrantzia. Udala berri hau herri-arrantzat guztiei zabaltzeko lanean da eta informazio gutun bat bidali diete baliarraindar guztiei. Dena den, informazio zabalagoa udaletxean bertan lortuko dute. Halaber «Baliarraingo herri garbia izan dadin nahi dugu, beti ere garbitasunak alaitasuna dakar eta», azaldu du Dorronsorok.



Ekainerako amaitu nahi dituzte hasi berri diren hirigintza lanak. N. L.

BALIARRAIN ▶

Psikologia hizpide gaur eskainiko den hitzaldian

18:00etan izango da 'Psikologia bizitzako ezbeharren aurrean' gizarte gelan

N. LATABURU

Gaur arratsaldeko 18:00etan Psikologia bizitzako ezbeharren aurrean izeneko hitzaldia eskainiko dute, Baliarraingo udaletxeko gizarte gelan. Hitzaldiaren helburua bizitzan zehar topatzen diren ezbeharrei aurre egiten irakastea da, hobeto bizi ahal izateko.

Programaren barruan garatuko diren gaiak honakoak dira: zer ulertzen dugun bizitzako ezbeharrez, bikote harremanetako gatazkak, bikote harremanen balorazioa, denboraren joana, seme-alabekiko eta lagunekiko harremanak, norberaren eta familiaren bizitza baldintzatzen duten adikzioak, langabezia eta erretiroa, besteak beste.

GUTUN@K ▶



Amezketar eta abaltzisketarrei

Zergatik EHAK-ri botoa eman? Hau da ikusten dugun egoera:

Batasuna eta Aukera Guztiak ilegalizatu dituztenean, «demokrazian» parte hartzen duten alderdi politikoek ilegalizazioaren kontra agertu arren, hala ere, bere programa eta kanpinarekin aurrera jarraitu dute, ezer gertatuko ez balitz bezela. Gainera hitz-potoak erabiliz: demokrazia, pakea, etabar.

Bien bitartean, berriz, herri-arrantzat asko hitzik gabe eta ordezkari-arrantzat gabe gelditu direlarik.

Demokrazia horretatik etorri behar al du bakea?

Gauzak horrela egonik, EHAK agertu da. Nahiz eta bere programa eduki, alde batera uzteko erabakia hartu du eta hitzik gabe daudenei bere ordezkari-arrantza eta babesa eskaini du, oinarritzko eskubideak defendatzeko helburu argiarekin.

Eskuzabaltasuna agertzeaz gain, herri honetan benetako demokrazia eta bakea jorratzeko bidea zein den ederki erakutsi dute.

Oraingoa oso une garrantzitsua da herri honi zor zaizkion eskubideak bideratzen hasteko. Eta horretarako aukera paregabea dugu hilaren 17an EHAK-ri botoa ematea. izan gaitzezen arduratsu!

JOSE MARI AMUNDARAIN TOLOSA

JOSE LUIS ZUBELDIA GOROSTIDI

▶ ABALTZISKETA-AMEZKETA

50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIarekin



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

LIZARTZA ▶ KULTURA

Bertso jaialdia eta kontzertuak antolatu dituzte bihar gauean

Bihar 22:30ean hasiko da bertso jaialdia herriko frontoian; ondoren, Tragander eta Nuke izango dira Gaztetxean



Luberrri bertso saioko kartela. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar 22:30ean Lizartzako Aztinondo frontoian Luberrri bertso saioa izango da. Lizartzako bertsozale elkarteak Euskadiko Kutxaren laguntzarekin antolaturiko ekitaldi honetan Je-

sus Mari Irazu, Jon Maia, Jokin Sorozabal eta Aitor Sarriegi ariko dira bertsoan eta gai jartzailerak, berriz, Xabino San Sebastianek egingo ditu. Izan ere, Luberrri bertso hurra berritzen izeneko proiektuaren barnean sartu behar da ekital-

di hau. Egitasmo honen helburua saioak galtzen ari diren herrietan bertso-saioen antolaketa lehen urratsa ematea da. Saio hauek aurrera begira jarraipen bat izatea lortu nahi da, aurten ereindako haziak datorren urtean bere kasa eman baitezake fruitua. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Euskadiko Kutxak elkarlanean aurrera eramaten ari dira proiektua hau, eta Lanku bertso zerbitzua egitasmo honen kudeatzailea da.

Ondoren kontzertua

Bertso jaialdiaren ondoren, musikaren tartea izango da, bi talde ariko baitira Lizartzako Gaztetxean. Gasteizko Tragander eta Azeptitiko Nuke musika taldeek euren saioa eskainiko dute gauerditik aurrera eta kasu honetan, bertso saioan bezala sarrera doakoa izango da. Ekitaldi hau Lizartzako Axurdario herri plataformak antolatu du.

IBARRA ▶ OLINPIADA TXIKIA



Pasa den urtean bezala, aurten ere eskoba jokoan ariko dira. HITZA

Bihar hasiko da Ibarako XII. Olinpiada Txikia

Hauspoa Kultur Elkarteak antolatu du; datozen bi asteberuetan egingo da

I. TERRADILLOS

Hauspoa kultur elkarteak Ibarako XII. Olinpiada Txikiari hasiera emango dio asteberu honetan. Hain zuzen ere, bihar hasiko da Olinpiada Txikia eta igandean jarraituko du eta datorren asteberuan amaituko da.

Ekintza honetan parte hartu eta ongi pasatzeko asmoz herriko 13 taldek eman dute izena: Balantxaka, Xepela A eta B, Sendi-Ekintza A eta B, IKE A eta B, Uzturpe Ikastola A, B eta

D, Gazte Asanblada, Merkatarien Elkarte eta Bizi-Nahi jurbilatuen elkarte.

Bihar, 15:30ean musean ariko dira eta IKE izango da lekua. Ordu berean, eskoba jokoan ariko dira Xepela elkartearen. Igandean, berriz, 11:30ean toka eta bolon txanda izango da. Emeterio Arrese parkean jokatuko dute.

Hauspoa kultur elkarteak talde eta parte-hartzaile guztieri jardueraren hasiera izurako puntualtasunez agertu daitezkeen eskatu die.

IBARRA ▶ KIROLA

Atsedendia du Ibarak asteberu honetan

Jeitsiera postuetan dago taldea; jokalaria osatzeko aproposa izango da atsedendia

I. TERRADILLOS

Atsedendia du Ibarra areto futbol taldeak asteberu honetan. Ez dago bere onenean Ibarako taldea, pasa den asteberuan Carnicerias Saenz taldeak irabazi eta gero jaietsiera postuetan baitira berriro ere. Beraz, asteberu honetako emaitzei begira egongo da talde ibartarra, bereziki, Burlata eta Sestaoren arteko norgehiagokarena.

Egoera ez da batere ona, eta maila mantentzeko taldeak oso zaila izango badu ere, esperantza ez dute galdu behar.

Ibarakoen modura talde asko aurkitzen dira uneotan, eta horregatik partida guztiak izango dira garrantzitsuak liga amaitu bitarte. Horregatik, Ibarra bezala hainbat talde daudelako ez dago ezer erabakita.

Egia da asteberu honetan atsedendia izateak punturik ez batzea ere esan nahi duela, eta hori litzateke alde txarra. Baina, bestalde, atsedendia Ibarako taldeak beharrezkoa du; baja asko dituen taldeak, eta Hautsi, Victor edo Prados bezalako jokalaria garrantzitsuak osatzeko aproposa izango da.



Batasuna EHAKrentzat botoa eske

TOLOSA ▶ Atzo Tolosaldeko Batasunak prentsaurrekoa eskaini zuen Tolosako Kultur Etxean. Hauteskunde hauetan dagoen «egoera antidemokratikoa» salatu zuten eta «eskubide zibil eta politikoak bermatuko dituen aukera EHAK alderdia izanik» euren botoa eskatu

zuten. Agerraldian eskualdeko herri ezberdinetako ordezkariak parte hartu zuten, tartean, Juan Manuel Erasun Zizurkilgo alkate ohia (idatzia irakurri zuen), Maixabel Arrieta Villabonako alkate ohia, Olatz Amondarain Alegiako alkatea eta Jose Mari Olarra. IMANOL GARCIA

LEITZA ▶ PILOTA

ERREDAKZIOA

Abel Barriola Eskuz Banakako Txapelketatik kanpo utzi dute. Orkatilan min hartu eta jokatzeko moduan ez zegoela argudiatuta, gaur Gonzalezen kontra jokatzeko zen partida atzeratzea eskatu zioten EPELi leitzarrak berak eta Aspe enpresak. EPELeke epaileak, baina, ez du atzerapena onartu, eta partida bertan behera geratu da. Horrenbestez, Gonzalez partida irabazitaz emango diote, eta dagoeneko sailkatuta dago final-laurdenetan.

Aurtengo Buruz Buruko Pilota Txapelketan finala ez zen beste partidarik ez zela atzeratuko finkatu zuen EPELeke arautegian. Hala ere, Aspe pilota enpresa saiatu egin da atzerapena lortzen, Abel Barriola ez zegoelako partida jokatzeko moduan.

Sebastien Gonzalezen aurka

Abel Barriola txapelketatik at utzi dute

EPELeke epaileak ez du pilotariak eta Aspek eskatutako atzerapena onartu

jokatzeko zen leitzarra, eta hura ere Aspe enpresakoa denez, partida astebete atzeratuko eskatu dio enpresa horrek Asegarceri. Horrek, ordea, ezetz esan dio. Dena den, azkeneko erabakia EPELeke epailearena zen, eta haren erantzuna ere ezezkoa izan da.

Gonzalezentzat izango da,

beraz, final-zortzireneko partida horren garaipena, eta Barriolak agur esan behar izan dio aurtengo txapelketari.

Oinatz Bengoetxea herriki-dea Lasa III. aren kontra galdu zuen pasa den asteburuan eta Leitza, beraz, ordezkaririk gabe geratu da dagoeneko Buruz Burukoan.

KIROLA ▶

Bengoetxea GRAVN-era; Onsalo Errekako finalera

Pilotari gazteak ere lan eta lan ari dira han eta hemengo txapelketetan parte hartuz

J. ASTIBIA

Asteburua hurbiltzen den heinean, agendari erreposoa eman beharrean aurkitzen dira pilotariak ere, izan ere hainbeste sariketa eta txapelketatan ari dira jokatzeko.

Horrela, esaterako Onsalo aresoarrak larunbatean Gartziandiako 3. lekua eskuratu zuen moduan, asteazkenean Erreka txapelketako finalerdia jokatu eta finalerako txartela eskuratu zuen, Eraso lagun zuela, 22-15eko emaitza lortu baitzuten Retegi-Arraztoa kanporatu ondoren. Finala hilabete barru jokatu dela jakinarazi diote HITZARI.

Bestalde Elgetakoan zuen partidua Olazabalek larunbatean, Landeroren aurka, eta 22-16eko emaitzarekin irabazi egin zion, aurrerako pasea eskuratuz. Txapelketa honetan berean zen aritzeko Ibai Bengoetxea ere asteburu honetan, Azpeitiko Beobideren aurka, baina leitzarrari GRAVN txapelketarako deitu diotenez, Elgetako saioa atzeratu egin du. Hortaz, larunbatean Errioxara joan beharra da mutila, bi-bitara jokatzera, oraindik ez laguna, ez eta are-riok ere zein izanen dituen jakinarazi ez dioten arren. Hirugarren aldia omen da horretan parte hartzen duela.

LEITZA ▶ MUSIKA

Acido C taldeak kontzertua eskainiko du Torrea tabernan bihar gauean

Funky-Jazz-Soul estiloko nahasita, musika instrumentala egiten du

J. ASTIBIA

Acido C taldea heldu da bihar Leitzako Torrea tabernara. 00:30ean hasita, duela bi urte eta erdi sortutako talde gipuzkoarrak, *La ostra azul* diskoko doinuak eskainiko ditu.

Horixe da gainera, oraingoan, kalean duten bakarra, iazko urte bukaeran egin zuten, eta zazpi doinu osatutakoa da, taldeko partatide kopurua haina. Izan ere, kritiken arabera, «funk nahasgarria, aldi berean sentsualitatez eta extasis jositako soul-a eta jazz jasa ttikia» nahasten dituen musika egiten dute, taldea osatzen duten 3 haizegile, perkusio, gitarra, baxu eta batera joleek. Musika



Acido C taldeak *La ostra azul* izeneko diskoa badu kalean. HITZA

estilo desberdinekoak dira jatorriz, baina guztiak musikari profesionalak dira, lanbide horretan eskarmentu desberdina badute ere.

Oso entzungarria den doinuak dituzte eskaintzeko: musika instrumentala egiten dute, tarteka, zenbait piezatan, koro batzuk ere egiten dituztelarik.

LEITZA ▶ KULTURA

Ipuinak nola kontatu ikasiko dute bihar

Hamalau ikasle joanen dira saiora, Pello Añorga ipuin kontalariaren esanetara, adi

J. ASTIBIA

Bihar, 09:00etan hasi eta goiz osoan zehar ariko dira ipuinak nola kontatu ikasten lanean, liburutegian. Hamalau ikasle dira joatekoak, eta irakasle Pello Añorga ipuin kontalaria izanen dute. Gurasoak zein gaian interesa dutenak dira denak: amak, aitak, gazteak, hauek irakaskuntza arloan lanean edota ikasten ari direnak gehienak... 3 urtetik hasi eta 9 urte bitarteko umetxoei zuzendutako ipuinen kontaketa teknikak landuko dituzte.

Añorgak ipuinen egitura, hizkera, osagaiak, hauen arteko loturak nola egin, kontaketa teknikak, alegia dramatizazioa, ahotsa, giroa... moduko ezaugarrien berri emanen die eta animatuz gero, ikasitako praktikan jartzen ere saiatuko dira.

Ikastaroarekin lotuta, Kultur Taldeak adierazita, aste honetan bukatu zen ipuin lehiaketan parte hartzeko epea. Gaur zortzi emanen dute emaitzen berri, liburutegian bertan antolatuko duten ekitaldi ttikian.

hitza *lagunen*
txokoa

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46
(8:30 / 20:30)

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan *Leidorren* emango den 'MILLION DOLLAR BABY' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

XABIER BENGOETXEA IPARRAGIRRE HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko apirilaren 15a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzolaia, Aduna, Abatub, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzola,
Aroste, Arzo, Balamán, Beldarza, Berastegi, Berrozi, Estuan, Herrialde,
Iturriz, Irujo, Jarama, Leizola, Lizaso, Oñativia, Oñeta, Tolosa, Villabona,
Zuzen Besterik: Leizaldekoko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauraritzak
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

10

hotzena

08

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. KZguneko tutorea izango da 16:00etatik 20:00etara.

Baliarrain. *Psikologia bizitzako ezbeharren aurrean* hitzaldia 18:00etan gizarte gelan.

Ibarra. Batasunak deituta, talo jatea eta hauteskundeei buruzko hitzaldia izango da herriko plazan 20:00etan.

Lizartza. *Luberri* bertso saioa bihar 22:30ean frontoian: Jesus Mari Irazu, Aitor Sarriegi, Jon Maia eta Jokin Sorozabal.

Lizartza. Gasteizko Trangader eta Azpeitiko Nuke musika taldeak Gaztebean bihar 24:00etan.

Tolosa. Batasunak hauteskunde kanpainari amaiera emateko Biltokian 19:00etan elkartu propaganda jartzeko eta 21:00etan *lunch* bat izango du Intxurren.

Tolosa. Gure Txokoa elkartearen 75. urtemugako liburuaren aurkezpena 20:30ean elkarte bertan.

Tolosa. Otoitzaldia bokazioen alde Santa Klara monastegian 20:00etan.

Tolosa. Carlena musika taldea Iratxo tabernan 23:00etan.

Tolosa. Bihar 11:00etan Santa Maria parrokiaren eukaristia Juan Pablo II.a Aita Santu hil berriaren alde.

Tolosa. Gure Txokoa elkarteak bere eguna ospatuko du, 75. urtemuga dela eta: 11:30ean meza Jesusen Zerbitzarietan, elkarte abesbatzarekin; ondoren aperitiboa elkartearen eta 20:30ean afaria Fronton jatetxean.

Tolosa. Gazte Topagunearen irteera bihar Tau-Granada saskibalo partidua ikustera Gasteizera. Izen-ematea, Gazte Topagunean.

Tolosa. Haurrentzako *Groau!!!* antzezlan eskainiko du Hika taldeak Leidor zineman bihar 17:00etan.

KIROLAK

GAUR

Areto futbola

▶ Errotandi Lazkao-Cash Converters (1. Maila A. Barandiaran 20:45)
▶ Laskorain-Irizabal arrainak (1. Maila A. Berazubi 22:15)
▶ Tinta Billabona-Altzakoa (Neskak. Olaederra 20:45)

Pilota

(Gipuzkoako Elkarte Artekoa)
▶ Elordi Herrigintza-Lazkao (Eskuz binaka. Jubenil 2. maila. Odieta 19:00)
▶ Behar Zana-Aretxabaleta (Eskuz binaka. Nagusiak 2. maila. Odieta 19:00)
▶ Atxurbide-Kuku (Pala motza. Nagusiak. Fanderia 20:00)

BIHAR

Pilota

(Gipuzkoako Elkarte Artekoa)
▶ Ilunpe 2-Aurrera Saiaz (Eskuz binaka. Infantilak. Ikaztegieta 16:00)
▶ Elordi-Lazkao 4 (Eskuz binaka. Inf. Ikaztegieta 16:00)
▶ Behar Zana-Lazkao 2 (Eskuz binaka. Infantilak. Ikaztegieta 16:00)
▶ Aurrera Saiaz 2-San Esteban (Eskuz binaka. Infantilak. Lazkao 17:00)

Saskibaloia

▶ Aralar Kirolak-Biurraena Astigarraga (Nagusiak. Berazubi 17:00)

Areto futbola

▶ Goierri EHU-Hegoalde (Ohorezko Maila. Aldiri Urretxu 18:00)
▶ Allerru Algeposo-Laskorain (1. Maila Nazionala B. Bekoerrota Lezo 18:00)
▶ Trans.Lakunza-Makax (Autonomikoa. Olaederra 18:30)
▶ Ayete-Eskolapioak B (1. Maila A. Hernani 18:00)

Futbola

▶ Oartzun-Tolosa (Goren Maila. Ugaldetxo 16:00)
▶ San Marcial-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. Gal 15:30)
▶ Tolosa-Real Union (Kadeteen Euskal Liga. Berazubi 16:30)
▶ Tolosa B-Amara berri (Lurraldeko 1. maila. Zubietza 15:30)
▶ Usurbil-Danena (Lurraldeko 2. maila. Igoera Fasea. Harane 17:30)
▶ Lasarte Oriá-Amaroz (Lurraldeko 2. maila. Kopa. Michelin 17:15)
▶ Sto. Tomas Lizeoa-Billabona (Jubenil 1. maila. Berio Donostia 19:15)
▶ Intxurre-Texas Lasartearra (Jubenil 1. maila. Elorri Alegia 16:00)
▶ Almen Aretxabaleta-Tolosa (Neskak. Igoera fasea. Almen 16:00)

Futbol 7

▶ Perku taberna-Ibarrakoa Gazte Asanblada (1. Maila. Andoan 1. 18:15)
▶ Trinkete Ibaeta-Bar Shanti Kirolak (2. Maila. Andoan 2. 19:15)

ETZI

Futbol 7

▶ Lanbroa Dickens-Hispavista. com (2. Maila. Idiazabal 1. 11:00)

Futbola

▶ Intxurre-Hondarribia (Lurraldeko 2. maila. Igoera fasea. Elorri 16:30)

ZINEMA

Gaztelu. *Granujas de medio pelo.* Tabernan 19:30ean
Leitza. *Whisky.* 22:30ean zineman.
Tolosa. *Millon dolar baby.* Leidor zineman 22:30ean. Bihar 19:30ean eta 22:30ean.

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.

Zenbakia. 232.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Euskal astoa Amasa-Villabonan.
Beste gaiak. Adunako udal erabakiak; Jokin Zabala sukaldari billabonatarra; Zizurkilgo antzerki astearren hirugarren edizioa prestatzen ari dira; Asteasun abeltzaintzak sortzen dituen arazoak; Diseinuan sakontzeko edukiak euskaratu ditu Ikastolak; Garagardo azoka Andoaingo Gaztebean...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. eskuin 20150 Villabona
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.

Zenbakia. 211.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 5.500 ale.
Gai nagusia. Tolosa, hiri euskalduna.
Beste gaiak. Batel txapelketa; Ibarra Olinpiada txikiak; Altzon Zuhaitz Eguna; Bai Euskarari ziurtzagierien banaketa; Ioseba Rojo eskiatzailea; Kubako egoera; Ibarra ibialdia; Aldabako ibialdia; Beatriz dekorazio denda; Alos Quartet; Euskararen erabilera bultzatzen; Poesia emanaldiko argazkiak...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbidea 6, behea 20400 Tolosa
▶ 943 65 50 04
▶ erredakzioa@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maialen Baraibar Arraigo (Areso).
Apirilaren 10ean jaio zen Kortatuko 2. printzesa.
Pa handi bat lehenagusu Hegoren partez



URTE ASKOAN

Ugaitz Garmendia Aurkia (Baliarrain). Gaur 5 urte. Zorionak eta muuxu handi bat familia eta lagun guztien partez.

Urtebetetzea, agurrak... argitaratzeko etorri
HITZAren egoitzara; ekarri argazkia

astelehenean **HITZA**n
EAE-ko hauteskundeak
eskualdeko emaitzak herriz herri

